

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Denda fisikoa izango dugu eta bertan salduko ditugu gure produktu eskusiboak. Dendak Euskal Herriko hainbat hiriburutan egongo dira kokatuta.

Gure produktua fabrika baten ekoiztuko da eta fabrika hori aurrera eramango dugu Euskal herrian. Izan ere periferian kokatuko dugu komunikazioa errazagoa izan dadin.

- DENDA FISIKOA: Lehen aipatu dugun bezala denda fisikoa hiriburu batean (Bilbon) egongo da kokatuta bertan produktua saltzeko eta bezeroa bertara joan ahal izateko.
- Bulego bat edukiko dugu bertan lan egiteko eta bezeroekin tratu pertsonal bat izateko aukera emango duena.
- Lantegi bat izango dugu gure kuloak ekoizteko. Lehengo fasean, josteko makina asko izango ditugu, jostun profesionalak gidatuta. Beraien funtzioa gure lehengaiak elkartzea izango da, hau da, kotoia eta likra elkartu eta aldi berean plaka sartzeko zuloa gehituko diote. Hurrengoan, kate bat egongo da, non langileek plakak bere zorroan sartuko dituzten, produktuaren berotasuna lortzeko. Azkenik, behatzaileak egongo dira, dena ondo ekoiztu dela egiaztatzen.
- Bertan administratzaileak izango dira, enpresaren diru-iturriak, eskaintza, salmentak... eragingo duen dirua administratzeko. Diseinatzailea ere izango dugu, produktuaren diseinua erakargarria izan dezan. Ikertzailea ere izango dugu, produktuaren osagaiak, emakumeen osasunean arazoak eragin ez dezan. Horiek beraien lanetan adituak eta profesionalak izatea beharrezkoa izango da gure enpresan lan egiteko.

- WEBGUNEA: [www.cleanhot.eus](http://www.cleanhot.eus) izango da gure webgune ofiziala. Bertan gure produktua salduko da. Ordaintzeko metodo ezberdinak egongo dira: eskura edo txartelez. Bertan ere bezeroak gurekin kontaktatzeko aukera izango dute, edozein kasutan.

